



2026/5 OSOKO BILKURAKO AKTA

Zumaia herrian, 2026ko maiatzaren 28an, arratsaldeko seietan, udaletxe honetako batzar aretoan Udalbatza eratu da ohiko bilkura egiteko, aurrez zehaztutako eguneko aztergaien arabera. Garaiz eta zuzen deitu direlarik, Udalbatzako kide hauek bertaratu dira:

Lehendakaria: Iñaki Ostolaza Esnal

Bertaratutakoak:

- Argi Yeregui Egaña
- Aitor Manterola Garate
- Marina Bidasoro Arozena
- Asier Arakistain Alberdi
- Maite Egaña Larrañaga
- Unai Larrañaga Uranga
- Joxe Mari Azkue Castillo
- Nerea Goiria Mendiolea
- Itziar Etxabe Etxabe
- Jose Miguel Antia Albizu
- Ainhua Illarramendi Azkue
- Xabier Odriozola Etxaniz
- Mireia Aranbarri Ieregi
- Ander Olaizola Esnal
- Duñike Agirrezabalaga Ugarte

Ez bertaratutakoak: Iker Mardaras Arrieta

Idazkaria: Gorka Urgoiti Aguirre

IÑAKI OSTOLAZA ESNAL:

Arratsalde on. Dirudienez kanpaiak jo omen dute. Hasi ingo gea, besteik gabe.

ESAN-EGINAK ETA ERABAKIAK

1.-AURREKO BILERAKO AKTAREN ONARPENA, BIDEZKOA BADA.

2026/4 (2026.04.30)apirileko Ohiko Osoko Bilkurako akta aho batez onartu dute.



2.- IRIZPENAK

2.1.- 2026KO 7. KREDITU ALDAKETA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.

Transferentzia bidezko kreditu aldatetaren 2026-KALD-000007-00 zenbakidun espedientea onartzeko proposamena.

Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientearen berri eman da, gastu partiden arteko kreditu transferentziaren modalitatekoa.

Ordezko Kontu-hartzaileak egindako txostena irakurri da. Bertan adierazten da aipaturako espedientea bat datorrela aplikagarria zaion legeriarekin, zehazki 21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Toki Erakundearen Aurrekontuei buruzkoak, 29. artikuluan ezarritakoarekin.

Gaia aztertu ondoren,

ERABAKI DU

Lehenengoa.- 2026ko maiatzaren 20an ospatzen den Ogasun batzorde honek onartzen du Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientea, kreditu transferentzien modalitatekoa, proposamenean ageri den partidakako xehetasunarekin, kapituluko laburpen honen arabera:

Kreditua transferituko duten gastuak (bajak)

Kapitulua	Izena	Egungo kredituak	Murrizketa	Amaierako kreditua
6	INBERTSIO ERREALAK	30.000,00	30.000,00	0,00
	GUZTIRA	30.000,00	30.000,00	0,00

Kreditua jasoko duten gastuak (altak)

Kapitulua	Izena	Egungo kredituak	Gehikuntza	Amaierako kreditua
2	ONDASUN ARRUNTAK ETA ZERBITZUAK	33.000,00	26.877,54	59.877,54
6	INBERTSIO ERREALAK	5.000,00	3.122,46	8.122,46
	GUZTIRA	38.000,00	30.000,00	68.000,00

Bigarrena.- Kreditu transferentzien espedientea onartzeko, ez dago jarraitu beharrik aurrekontua onartzeko aurreikusitako informazio, erreklamazio, errekurso eta publizitate araurik. Behin, Osoko Bilkurak onartzen duenean behin betiko bihurtuko da.



Aldeko botoak: 2(EAJ), 2 (EH BILDU).

Aurkako botoak: 0.

Abstentzioa: 0.

Proposamen hau Osoko Bilkurara eramatea onartzen da.

Batzordeburua

Kontu-hartzailetzako teknikaria

IÑAKI OSTOLAZA ESNAL:

Hemen iten dana da txakur parkea bideratuta zeuden 30.000 euro, ikusirik ezingo genula aurrea eraman, ba gutxitu. Eta sartzen dira partida hoiek honako hauetan: kontzientziazio eta sentsibilizazio kanpaina, ingurugiroko hainbat gastu, baratzak eta baserri bideen mantenua.

Aldeko botoak: 16 (10 EH Bildu, 5 EAJ-PNV eta 1 Euskal Sozialistak)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioak: 0

ERABAKIA:

7. KREDITU ALDAKETA ONARTZEA.

2.2.- ZUMAIKO GAZTEGUNEAREN FUNTZIONAMENDU ARAUDIARI HASIERAKO ONARPENA EMATEA, HALA BADAGOKIO.

2026KO MAIATZAREN 20KO HERRITARRAK BATZORDE INFORMATZAILEKO IRIZPENA, ZUMAIKO GAZTEGUNEAREN FUNTZIONAMENDU ARAUDIARI HASIERAKO ONARPENA EMATEKO

AURREKARIAK

1. Gaztegunea Zumaia nerabeei zuzendutako Udal zerbitzua da, zehazki 12-17 urte bitartekoei, Gipuzkoako Gaztematika haur eta gazteen prestakuntza sistemaren barruan, genero ikuspegiarekin.
2. Nerabeek, gizarte hezitzaile lantalde baten bidelaguntzarekin, beren eskakizunak eta ekimenak sortu eta garatu ahal izateko elkargunea da.
3. Udalak nerabeen esku jartzen duen ekipamendua da, haien interesetan eta beharretan oinarritutako jarduera programa bat eskainiz. Horretarako, zenbait baliabide jarri ditu Gaztegunean (mahai jokoak, tailerrak, ping-pong mahaia, mahai futbola...).
4. Ordenantza honen xedea izango da Gaztegunearen erabilerarako araubide bat eta elkarbizitzarako tresna bat izatea.



5. Ordenantzaren helburu zehatzak honakoak dira:

- Erabilera egokia bermatzea: instalazioak modu arduratsuan eta errespetuz erabiltzea, materiala eta espazioak zainduz.
- Bizikidetzaren sustatzea: erabiltzaileen arteko errespetua, berdintasuna eta inklusioa bultzatzea, gatazkak saihestuz.
- Segurtasuna ziurtatzea: erabiltzaileen ongizatea babesteko arauak ezartzea.
- Ordutegiak eta sarbidea arautzea: noiz eta nola erabili daitekeen zehaztea.
- Jardueren antolaketa erraztea: nerabeentzako ekintzak, tailerrak edo programak modu koordinatuan garatzeko markoa ematea.
- Erantzukizunak eta zigorak ezartzea: arauak betetzen ez direnean neurriak zehaztea.
- Nerabeen parte-hartzea sustatzea: nerabeek espazioaren kudeaketan eta dinamizazioan parte har dezaten bultzatzea.

6. Berdintasun sailak, araudia aztertu ondoren, genero eraginaren txosten positiboa egin du.

IRIZPENA

Ondorioz, 2026ko maiatzaren 20ko Herritarrak Batzorde informatzaileak, ondorengo botoekin:

Alde: EH Bildu: 3 boto

EAJ: 3 boto

PSEE: 1 boto

ALDEKO irizpena eman du azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuz onartutako, Toki Erakundearen Antolamendu, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoko Erregelamenduaren 135.3 artikulua xedatutakoaren arabera, eta honako Proposamen hau udalbatzako osoko bilkuraren iritzipean jartzea erabaki du, Toki araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 47. artikuluan araututakoari jarraituz, eta horren arabera, erabakia udalbatzako bertan dauden gehiengo sinplez hartu beharko da:

LEHENA.- Zumaia Udalaren Gazteguneko funtzionamendu araudiari hasierako onarpena ematea, espedientean jasota dagoen moduan.

BIGARRENA.- Espedientea eta, ondorioz, hasieran onartutako ordenantza kontsultetarako, jendaurrean jartzeko eta interesdunei entzuteko epea ezartzea, hogeita hamar eguneko epean, iragarkia Udalaren iragarki-oholean eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuta. Aldi berean, udal ordenantzaren testua Udalaren web atarian argitaratzea: www.zumaia.eus.



HIRUGARRENA.- Epe horretan erreklamaziorik edo iradokizunik aurkezten ez bada, behin betiko onartutzat joko da, Osoko Bilkuraren berariazko akordiorik behar izan gabe, eta ordenantzaren testu osoa isilbidez behin betiko onartzeko erabakia Udalaren iragarki-oholean eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da, denek horren berri izan dezaten.

Alkatea
(Gazteria zinegotziak eskumena lagata)

MAITE EGAÑA LARRAÑAGA:

Bueno, labur-labur: Zumaia Udalaren Gaztegunean, hau da, Gaztetxolan funtzionamenduan inguruko araudia da. Arau batzuk bazeuden arren, ez geneukan guk zehaztuta. Eta ordenantza honen helburua da erabilera egoki bat bermatzea, bizikidetzaren sustatzea, segurtasuna ziurtatzea, erabilerak eta sarbidiak arautzea, jardueraren antolatzea eta erantzukizunak eta zigorrek ezartzea, kasu bakoitzaren nola jokatu behar den zehazteko. Gero baita ere nerabeen parte-hartzea nola sustatuko den. Puntu horiek jasotzei eta hoiexek ordenatzea da helburua.

Aldeko botoak: 16 (10 EH Bildu, 5 EAJ-PNV eta 1 Euskal Sozialistak)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioak: 0

ERABAKIA:

ZUMAIKO GAZTEGUNEAREN FUNTZIONAMENDU ARAUDIARI HASIERAKO ONARPENA EMATEA.

3.- PROPOSAMENAK

3.1.- 2026KO 8. KREDITU ALDAKETA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.

Gaia landu ala ez:

Aldeko botoak: 16 (10 EH Bildu, 5 EAJ-PNV eta 1 Euskal Sozialistak)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioak: 0

Kreditu gehigarrien bidezko kreditu aldatzeko espedientearen 2026-KALD-000008-00 zenbakidun espedientea onartzeko proposamena.

Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientearen berri eman da, kreditu gehigarrien modalitatekoa.

Kontu-hartzaileak egindako txostena irakurri da. Bertan adierazten da aipatutako espedientea bat datorrela aplikagarria zaion legeriarekin, zehazki 21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Toki Erakundearen Aurrekontuei buruzkoak, 34. artikuluan ezarritakoarekin.



ERABAKI DU

Lehenengoa.- 2026ko maiatzaren 28an ospatzen den Osoko Bilkurak honek onartzen du / ez du onartzen Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedienteak, kreditu gehigarrien modalitatekoa, proposamenean ageri den partidakako xehetasunarekin, kapituluko laburpen honen arabera:

KREDITU GEHIGARRIAK

Kapitulua	Izena	Gehikuntza
2	ONDASUN ARRUNTAK ETA ZERBITZUAK	48.541,37
6	INBERTSIO ERREALAK	29.500,00
KREDITU GEHIGARRIAK GUZTIRA		78.041,37

FINANTZAKETA

Kapitulua	Izena	Zenbatekoa
8 (SARRERAK)	ACTIVOS FINANCIEROS.	78.041,37
GUZTIRA		78.041,37

Bigarrena.- Jendaurrean ikusgai jartzea hamabost egunez, erreklamazioen ondorioetarako. Erreklamaziorik aurkeztzen ez bada, erabaki hau behin betikotzat joko da:

Aldeko botoak:
Aurkako botoak:
Abstentzioa:

Proposamen hau Osoko Bilkurara eramatea onartzen/ez da onartzen da.

Batzordeburua

Kontu-hartzailea

IÑAKI OSTOLAZA ESNAI:

Hemen azaltzen da gerakinetatik 78.000 euro atezten dianak eta partida hauetara bideratuko dira: hondartzak - suteen aurkako mantentze lana 3.541,37; inbertsioak hondartza instalazioetan 14.500; hobetze obrak auzo bideetan 15.000; lorategien mantenua 15.000; komunikazioko gastu arruntetako inpulsoa 15.000; eta NAIZ irratiko dirulaguntza 15.000. Zerbait komentatzeko?



(Aitor Manterola Garate zinegotziak argitu du ez duela bozkatuko NAIZ irratiko kolaboratzaile/kazetaria delako).

Aldeko botoak: 15 (9 EH Bildu, 5 EAJ-PNV eta 1 Euskal Sozialistak)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioak: 0

ERABAKIA:

8. KREDITU ALDAKETA ONARTZEA.

3.2.- 2024-2027RAKO DIRULAGUNTZEN PLAN ESTRATEGIKOAREN 1. ERANSKINAREN 2026KO 1. ALDAKETA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.

GAIA LANDU ALA EZ:

Aldeko botoak: 16 (10 EH Bildu, 5 EAJ-PNV eta 1 Euskal Sozialistak)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioak: 0

**2024-2027RAKO DIRU-LAGUNTZEN PLAN ESTRATEGIKOAREN 2026KO
1.ALDAKETAREN IRIZPENA**

AURREKARIAK

2023ko azaroaren 29an egindako Osoko Bilkuran Zumaia Udalaren Diru -laguntzen Plan Estrategikoa onartu zen 2024-2027 ekitaldietarako.

Orain, udalaren 2026ko 8.kreditu aldaketaren ondorioz diru-laguntza lerro berri bat gehitzea onartu denez, 38/2003 Diru-Laguntzen Lege Orokorraren 8.artikuluko 1.puntua kontuan izanik, 2024-2027 urteetarako diru-laguntzen plan estrategikoaren 2026ko 1.aldaketa onartu beharra dago.

IRIZPENA

1. Horregatik, 2026ko maiatzaren 28an ospatzen den Osoko Bilkura honek ez du onartzen/onartzen du 2024-2027 epealdiko diru-laguntzen plan estrategikoaren 2026ko 1.aldaketa, hurrengo botoekin:

Aldeko botoak:

Aurkako botoak:

Abstentzioa:



2. Horren ondoren, Herri Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 70.2 artikuluan xedatutakoaren bat etorri GAO-n argitaratuko da.

Alkatea

Idazkaria

IÑAKI OSTOLAZA ESNAL:

Kreditu aldaketa aurrea eraman da eta nola dirulaguntza zuzena dan, oain egin behar da dirulaguntzen plan estrategikoan txertatu. Diruz laguntzen dan zerrendan barruan hau sartu. Eta horregatik hau proposamen bezela ekartzen da.

Aldeko botoak: 15 (9 EH Bildu, 5 EAJ-PNV eta 1 Euskal Sozialistak)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioak: 0

ERABAKIA:

2024-2027RAKO DIRU-LAGUNTZEN PLAN ESTRATEGIKOAREN 2026KO 1. ALDAKETA ONARTZEA.

3.3.- ZUMAIKO KATU KOLONIEN KUDEAKETA PLANA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.

2026KO MAIATZAREN 28KO OSOKO BILKURAREN AKORDIO PROPOSAMENA ZUMAIKO KATU KOLONIEN KUDEAKETA PLANA ONESPENA EMATEKO.

PROPUESTA DE ACUERDO PARA EL PLENO MUNICIPAL DE 28 DE MAYO DE 2026 PARA LA APROBACIÓN DEL PLAN DE GESTIÓN DE COLONIAS FELINAS DE ZUMAIA

AURREKARIAK

1.- Ikusirik Animalien Ongizateari buruzko martxoaren 28ko 7/2023 Legeak Felinoen Koloniak Kudeatzeko Plan bat izateko beharra ezartzen duela.

2.- Ikusirik ZUMAIKO KATU KOLONIEN KUDEAKETA PLANA, udal zerbitzu teknikoek idatzia.

3.- Ikusirik Planaren helburua udalerrian bizi diren erkidegoko katuak kontrolatzea da, bai haien ongizateari dagokionez, bai haien kopuruari eta osasunari dagokionez.

ANTECEDENTES

1.- Visto que Ley de Bienestar animal 7/2023, de 28 de marzo establece la necesidad de tener un Plan de Gestión de Colonias Felinas.

2.- Visto el PLAN DE GESTIÓN DE COLONIAS FELINAS DE ZUMAIA redactado por los servicios técnicos municipales.

3.- Visto que el plan tiene como objetivo el control de los gatos comunitarios que viven en el municipio, tanto en lo referido a su bienestar como a su número y su vertiente sanitaria.



IRIZPENA

Ondorioz, 2026ko maiatzaren 28ko osoko bilkurak, ondorengo botoekin

Alde:

Kontra:

Abstentzioa:

ALDEKO iritzia eman du eta honako IRIZPEN hau udalbatzako osoko bilkuraren iritzipean jartzea erabaki du (Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 47 artikuluan araututakoari jarraituz, erabakia udalbatzako bertan dauden gehiengo sinplea beharko da):

LEHENENGOA. Udal zerbitzu teknikoek idatzitako ZUMAIKO KATU KOLONIEN KUDEATZEKO PLANA onartzea,

BIGARRENA: Akordio hau Gipuzkoako Aldizkari ofizialean eta Zumaia udaleko egoitza elektronikoan (www.zumaia.eus) argitaratzea, Plana bere osotasunean ere Zumaia udaleko egoitza elektronikoan eskuragarri jarri.

IÑAKI OSTOLAZA ESNAL:

Hemen egiten duguna da legeak ezartzen ditun betebeharrak betetzeko eta gehienbat dirulaguntzak jaso ahal izateko eskatzen du hau kudeatzeko plan bate gotea. Lehendik ere diruz laguntzen da, gure eginkizuna dalako. Baina bueno, oain plana egiten da eta gero hau onartzen baldin bada eskatu ahal izango ditugu dirulaguntzak estaltzeko hemendik egiten diren inbertsioak eta gastuak.

Aldeko botoak: 16 (10 EH Bildu, 5 EAJ-PNV eta 1 Euskal Sozialistak)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioak: 0

ERABAKIA:

ZUMAIKO KATU KOLONIEN KUDEAKETA PLANA BEHIN BEHINEKOZ ONARTZEA

DICTAMEN

En consecuencia el pleno del Ayuntamiento de Zumaia de fecha 28 de Mayo de 2026, tras la siguiente votación:

A favor:

En contra:

Abstención:

acuerda ESTIMAR el presente dictamen de conformidad al artículo 47 de la Ley 7/1985, de 2 de abril, reguladora de las Bases de Régimen Local y someterlo a la consideración del Pleno que deberá adoptar el acuerdo con el quorum de la mayoría simple de los miembros presentes, el siguiente DICTAMEN:

PRIMERO: Aprobar el PLAN DE GESTIÓN DE COLONIAS FELINAS DE ZUMAIA redactado por los servicios técnicos municipales.

SEGUNDO. Publicar el presente acuerdo en el Boletín Oficial de Gipuzkoa y en la sede electrónica del Ayuntamiento de Zumaia (www.zumaia.eus), el Plan en su totalidad se publicara en la Web del Ayuntamiento de Zumaia.



3.4.- ZUMAIKO PORTUKO IBAI-GARRAIOKO ZERBITZUAREN TASAK MUGI TARIFA-SISTEMAN SARTZEKO HITZARMENAREN JARRAIPEN BATZORDEAN ZUMAIKO UDALAK IZANGO DITUEN BI ORDEZKARIAK IZENDATZEA, HALA BADAGOKIO.

GAIA LANDU ALA EZ:

Aldeko botoak: 16 (10 EH Bildu, 5 EAJ-PNV eta 1 Euskal Sozialistak)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioak: 0

→2026ko Apirileko Osoko Bilkuran onartutako irizpenaren bosgarren puntua:

BOSGARRENA.- Zumaia Udalak Hitzarmenaren Jarraipen Batzordean izango dituen bi ordezkariak izendatzea. Batzorde hori hitzarmena indarrean sartzen denetik hilabeteko epean eratu beharko da. Hauek dira izendatutako ordezkariak:

1.- IÑAKI OSTOLAZA ESNAL

2.- ARGÍ YEREGUI EGAÑA

IÑAKI OSTOLAZA ESNAL:

Hitzarmenean eskatzen ziguten bi ordezkari izendatzea hor eoteko eta izendatzen ditugu ni neu eta Argi. Batzar bat edo noizbait egiten bada hara jungo ginake.

Aldeko botoak: 16 (10 EH Bildu, 5 EAJ-PNV eta 1 Euskal Sozialistak)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioak: 0

ERABAKIA:

ZUMAIKO PORTUKO IBAI-GARRAIOKO ZERBITZUAREN TASAK MUGI TARIFA-SISTEMAN SARTZEKO HITZARMENAREN JARRAIPEN BATZORDEAN ZUMAIKO UDALAK IZANGO DITUEN BI ORDEZKARIAK IZENDATZEA.

4.- UDALBATZAKO ORGANOEN KONTROLA ETA FISKALIZAZIOA

4.1.- UDALAREN 2026KO 5. ETA 6. ERREPARO ORRIAK JAKINARAZI.

KONTU-HARTZAILEAREN ERREPARO ORRIA (5/2026):

AURREKARIAK:

Kontu-hartzaileak, Zumaia Udaleko kontratuen egoeraz interesaturik honako kontratu hauek epez kanpo aurkitu ditu fakturei oniritzia ematerakoan:

KONTRATUEN ERANSKINA

Enpresa	Kontratututako	Data	Iraupena	data
---------	----------------	------	----------	------



	zerbitzua	Kontratua		amaitu
Eulen	Eguneko zentroa	01/02/2009	1 + 1	01/02/2011
Arazi IKT SL	Algorri kudeaketa	20/04/2016	1+1	20/04/2018
Kastore Gest S.L.	Hainbat zerbitzu	05/11/2009	2+1	05/11/2012
Serkonten	Edukiontzia higienikoak	01/11/2016	1	01/11/2017
Erreka	Ate automatikoen mantenua	01/10/2016		01/10/2017
GEZE IBERIA S.R.L.U.	Ate automatikoa mantenua	23/07/2019	1	23/07/2020
TECNOGYM TRADING S.A	Gimnasioko makinariaren mantenua			

Aplikagarria zaizkion arauak:

- 1) 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuen + Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones.
- 2) 21/2003 FORU ARAUA, abenduaren 19koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundearen Aurrekontuei buruzkoa.
- 3) 2/2012 Lege Organikoa, apirilaren 27koa, Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzkoa.
- 4) 32/2018 Foru Dekretua, abenduaren 27koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Tokiko Sektore Publikoko entitateen barne kontrolaren araubide juridikoa erregulatzen duena eta Gipuzkoako toki entitateen kontabilitatearen arau esparrua ezartzen duen abenduaren 15eko 86/2015 Foru Dekretua aldatzen duena.
- 5) RESOLUCIÓN de 2 de junio de 2008, de la Intervención General de la Administración del Estado, por la que se publica el Acuerdo del Consejo de Ministros de 30 de mayo de 2008, por el que se da aplicación a la previsión de los artículos 152 y 147 de la Ley General Presupuestaria, respecto al ejercicio de la función interventora en régimen de requisitos básicos.
- 6) Resolución de 25 de julio de 2018, de la Intervención General de la Administración del Estado, por la que se publica el Acuerdo del Consejo de Ministros de 20 de julio de 2018, por el que se da aplicación a la previsión de los artículos 152 y 147 de la Ley General Presupuestaria, respecto al ejercicio de la función interventora en régimen de requisitos básicos en el ámbito de los contratos del sector público y encargos a medios propios.

Zehaztasunak:

21/2003 FORU ARAUA, abenduaren 19koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundearen Aurrekontuei buruzkoa.

" 67. artikulua. Legezkotasunaren kontrola."

1.- Kontu-hartze-eginkizunaren helburua, haren legezkotasun kontrolaren ikuspegitik, toki erakundearen eta beraien organismo autonomoen egintza guztiak, beti ere haiek eskubide



eta betebeharr ekonomikoak edo gastuak aintzatestea eta likidatzea eragiten dutenean, beraietatik sortzen diren sarrera eta ordainketak eta administratutako ondasun publikoen bilketa, inbertsio eta, oro har, aplikazioa fiskalizatzea da, kudeaketa kasuan kasuko aplikatu beharreko xedapenen arabera izan dadin.

2.- Eginkizun horren erabilerak honako hauek eskuhartuko ditu:

a) Eskubideak edo betebeharr ekonomikoak sortzea edo baloreen fondoak mugitzea eragin dezaketen egintza, agiri edo espediente guztien kontu-hartze kritikoa edo aurretzia.

b) **Ordainketa-aginduaren eratzko kontu-hartzea.**

c) **Ordainketaren kontu-hartze materiala.** Udalbatzaren erabaki batengatik kontrol hori laginketa bidez baimentzen denean izan ezik, kontu-hartzailearen sinadura foru arau honetako 57. artikuluan aurreikusitako fondoen erabilpenerako mankomunitatei erantsiko zaie.

"70. artikulua. Erreparoa."

1.- Kontu-hartze-eginkizuna erabiltzean, organo kontu-hartzailea aztergai diren egintzen, agirien edo espedienteen edukiarekin edo itxurarekin ados ez badago, bere erreparoa idatziz azaldu beharko ditu erabakia edo ebazpena hartu baino lehen.

3.- Erreparoa gastuen erabilpenari, betebeharren aintzatespenari edo ordainketa-aginduari badagokio, espedientearen izapidetza etengo da harik eta hura ebazten den arte, beti ere honelakoetan gertatzen denean:

c) Espedientean **funtsezko beharkizun** edo izapidetak alde batetara utzi direnean.

4.- Erreparoa ukitzen duen organoa berarekin ados ez dagoenean, udalburuak ebatzi beharko du eztabaida, eta beraren ebazpena betearazi beharrekoa izango da. Ahalmen hau ezin da eskuordetu.

27/2013 Legea, abenduaren 27koa, toki-administrazioaren arrazionalizazio eta iraunkortasunari buruzkoa.

Bigarren artikuluan Martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartutako Toki Ogasunak arautzen dituen Legearen testu bateratua aldatzen du eta honela geratu da aldatuta martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Toki-ogasunak arautzen dituen Legearen testu bateratua:

"218. artikulua. Desadostasunen ebazpenari buruzko txostenak."

1. Kontu-hartzailetzako organoak txostena helaraziko dio osoko bilkurari, adierazitako eragozpenei dagokienez toki-entitateko lehendakariak hartutako ebazpen guztien inguruan; halaber, diru-sarreraren arloan antzemandako arazo nagusien laburpena bidaliko dio. Txosten horrek funtzio ikuskatzaileari dagozkion alderdiei eta betekizunei bakarrik erantzungo die, ikuskatutako jarduketaren aukera edo komenigarritasunari dagozkion gaiak gaineratu gabe.



Atal honetan jasotzen denak puntu independente bat osatuko du dagokion osoko bilkurako gai-zerrendan.

Korporazioko lehendakariak jarduketaren txosten justifikatzailea aurkeztu ahal izango du osoko bilkuran.

2. Aurrekoari kalterik egin gabe, eta desadostasunak daudenean, toki-entitateko lehendakariak kontrol-organo eskudunari aurkeztu ahal izango dio bere ebazpena, finantza-tutoretza esleitua duen administrazioaren gaia delako, hain zuzen.

3. Kontu-hartzailetzako organoak txosten bat helaraziko dio urtero Kontu Auzitegiari, toki-entitateko lehendakariak eta korporazioaren osoko bilkurak adierazitako eragozpenen kontra hartutako ebazpen eta hitzarmen guztien inguruan; halaber, diru-sarreraren arloan antzemandako arazo nagusien laburpena bidaliko dio. Dokumentazio horrez gain, tokiko korporazioaren justifikazio-txostenak aurkeztu beharko dira, hala badagokio.»

32/2018 Foru Dekretua, abenduaren 27koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Tokiko Sektore Publikoko entitateen barne kontrolaren araubide juridikoa erregulatzen duena

12. artikulua. Eragozpenak.

1. Organo kontu-hartzaileak adierazten badu ez dagoela ados aztertutako egintza, agiri edo espedienteen mamiarekin edo formarekin, bere

eragozpenak idatziz azaldu beharko ditu. Eragozpen horiek irizpidea finkatzen duten arauetan oinarritutako arrazoibideen bitartez motibatu behar dira, eta espedienteen jasotako oztopo guztiak barnean hartuko dituzte.

2. Baldin eta eragozpenak gastuen onespenerari edo xedapenerari, obligazioen onarpenari edo ordainketen aginduari eragiten badio, espedientearen izapidea etengo da harik eta hura ebatzi arte, betiere 21/2003 Foru Arauaren 70.3 artikuluan jasotako kasuetan gertatzen denean.

3. Aipatutako 70.3 artikuluan c) apartatuan jasotako kasuan, bidezkoa izango da eragozpen etenarazle bat azaltzea, honelakoak gertatuz gero:

a) Gastua onartzeko eskumenik ez duen organo bati proposatzen zaionean.

b) Obligazioaren onarpenaren frogagirietan irregulartasun larriak sumatzen direnean edo jasotzailearen eskubidea behar adina egiaztatzen ez denean.

c) Baldintzak edo izapideak ez betetzearen ondorioz egintza deuseztatuta gelditu daitekeenean edo, kudeaketa administratiboarekin aurrera jarraituz gero, toki entitateko diruzaintzari edo hirugarrenei diru galera ekarri ahal zaienean.

Korporazioko osoko bilkurak beste baldintza edo izapide osagarri batzuk onartu ahal izango ditu, organo kontu-hartzaileak txostena egin ondoren, eta haiek ere funtsezkotzat hartuko dira.

4. Eragozpena jasotzen duen organoak hura onartzen duenean, bertan jasotako akatsak zuzendu beharko ditu eta jarduketak berriro bidali beharko dizkio organo kontu-hartzaileari



hamabost eguneko epean. Eragozpena jasotzen duen organoak hura onartzen ez duenean, aldiz, foru dekretu honetako 15. artikuluan xedatutako prozedura hasiko du.

5. Baldin eta espedientean akatsak gertatzen badira funtsezkotzat ez diren baldintzak edo izapideak eta 21/2003 Foru Arauaren 70.3 artikuluan jasotako gainerakoak ez betetzearen ondorioz, Kontu-hartzaileak aldeko txostena egin ahal izango du, baina, egintza eraginkorra izango bada, akats horiek espedientea onartu aurretik zuzendu beharko dira. Organo kudeatzaileak akats horiek zuzendu

izanaren frogagiriak bidaliko dizkio organo kontu-hartzaileari. Baldin eta organo kudeatzaileak espedienteak aurrera jarraitzeko ezarritako baldintzak betetzen ez baditu, eragozpena azaldutzat hartuko da, eta horrek ez du eragotziko, egoki deritzen kasuetan, foru dekretu honetako 15. artikuluan jasotako prozedura hastea. Organo kontu-hartzaileak Herri Kontuen Euskal Epaitegira bidaliko ditu apartatu honetan jasotakoaren arabera azaldutako eragozpenen aurka hartzen diren ebazpen eta erabakiak.

b) Indarrean ez dauden kontratu batzuen fakturak iritsi dira eta honako hauek dira:

FAKTURAREN DATA	FAKTURAZENBAKIA	INTERESATUA	KONTZEPTUA	GUZTIZKOA BEZA BARNE
2026/2/28	FOSO-62900	EULEN SERVICIOS SOCIOSANITARIOS	URTARRILA: EGUNEKO ZENTROAREN KUDEAKETA	22.935,70
2026/4/23	FOSO-69571	EULEN SERVICIOS SOCIOSANITARIOS	MARTXOA: EGUNEKO ZENTROAREN KUDEAKETA	21.404,53
2026/4/20	2601117	ARAZI IKT, S.L.	Algorri bidean hezitzaile lanak	1.128,93
2026/2/25	33160585	GEZE IBERIA, S.R.L.U.	Kiroldegiko ate autonatikoaren konponketa	186,58
2026/3/31	26FA043468	ANTICIMEX 3D SANIDAD AMBIENTAL, S.A.U.	Izurriten aurkako mantenu prebentiboa-martxo	690,70
2026/1/29	2675000740	TECHNOGYM TRADING, S.A.	KIROLDEGIKO MAKINERIAREN MANTENUA Care program-urtarrila	66,11
2026/1/29	2675000514	TECHNOGYM TRADING, S.A.	KIROLDEGIKO MAKINERIAREN MANTENUA Care performance-urtarrila	502,00
2026/3/26	2675002140	TECHNOGYM TRADING, S.A.	KIROLDEGIKO MAKINERIAREN MANTENUA Care performance-martxo	502,00
2026/4/8	2675002602	TECHNOGYM TRADING, S.A.	KIROLDEGIKO MAKINERIAREN MANTENUA Care program-martxo	66,11
2026/4/28	88/26	KASTORE GEST, S.L.	SAN TELMO BASELIZAKO BISITA GELA	537,42
2026/4/28	89/26	KASTORE GEST, S.L.	SAN TELMOTAKO HAINBAT LAN	646,20
2026/4/28	91/26	KASTORE GEST, S.L.	APIRILAK 26 AITA MARI MONTAJE+DESMONTAJE	299,15
2026/4/28	93/26	KASTORE GEST, S.L.	OXFORD EGUN ARRUNTAK ETA JAI EGUNAK	1.025,96
				49.991,39

ONDORIOAK:

a) Zerrendatutako kontratu guztiak irregularutasun egoeran daudelarik, lehenbailehen eguneratu behar dira. Bestalde aipatu beharra dago hiler ordaintzen den kopuruaren garrantzia kuantitatiboa kontuan izanda, gizarte zerbitzuetako kontratua, hau da, eguneko zentroaren kudeaketa zerbitzuak lehentasuna eduki beharko luke kontratuen eguneratze



prozesuan.

b) Momentuz, zerrendatutako faktura guztien ordainketaren izapidetzea etengo da Alkateak ebatzi arte. Kontu-hartzaileak txostena helaraziko dio Osoko Bilkurari, adierazitako eragozpenei dagokienez alkateak hartutako ebazpen guztien inguruan eta **puntu independente bat osatuko du dagokion osoko bilkurako gai-zerrendan.**

Zumaian,

Kontu-hartzaile akzidentala

KONTU-HARTZAILEAREN ERREPARO ORRIA (6/2026):

AURREKARIAK:

Kontu-hartzaileak, Zumaia Udaleko kontratuen egoeraz interesaturik honako kontratu hauek epeaz kanpo aurkitu ditu fakturei oniritzia ematerakoan:

KONTRATUEN ERANSKINA

Enpresa	Kontratututako zerbitzua	Data Kontratua	Iraupena	data amaitu
Eulen	Eguneko zentroa	01/02/2009	1 + 1	01/02/2011
Arazi IKT SL	Algorri kudeaketa	20/04/2016	1+1	20/04/2018
Kastore Gest S.L.	Hainbat zerbitzu	05/11/2009	2+1	05/11/2012
Serkonten	Edukiontzia higienikoak	01/11/2016	1	01/11/2017
Erreka	Ate automatikoen mantenua	01/10/2016		01/10/2017
GEZE IBERIA S.R.L.U.	Ate automatikoa mantenua	23/07/2019	1	23/07/2020
TECNOGYM TRADING S.A	Gimnasioko makinariaren mantenua			

Aplikagarria zaizkion arauak:

- 1) 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuena + Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones.
- 2) 21/2003 FORU ARAUA, abenduaren 19koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundearen Aurrekontuei buruzkoa.
- 3) 2/2012 Lege Organikoa, apirilaren 27koa, Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzkoa.
- 4) 32/2018 Foru Dekretua, abenduaren 27koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Tokiko Sektore Publikoko entitateen barne kontrolaren araubide juridikoa erregulatzen duena eta Gipuzkoako toki entitateen kontabilitatearen arau esparrua ezartzen duen abenduaren 15eko 86/2015 Foru Dekretua aldatzen duena.



5) **RESOLUCIÓN de 2 de junio de 2008, de la Intervención General de la Administración del Estado, por la que se publica el Acuerdo del Consejo de Ministros de 30 de mayo de 2008, por el que se da aplicación a la previsión de los artículos 152 y 147 de la Ley General Presupuestaria, respecto al ejercicio de la función interventora en régimen de requisitos básicos.**

6) **Resolución de 25 de julio de 2018, de la Intervención General de la Administración del Estado, por la que se publica el Acuerdo del Consejo de Ministros de 20 de julio de 2018, por el que se da aplicación a la previsión de los artículos 152 y 147 de la Ley General Presupuestaria, respecto al ejercicio de la función interventora en régimen de requisitos básicos en el ámbito de los contratos del sector público y encargos a medios propios.**

Zehaztasunak:

21/2003 FORU ARAUA, abenduaren 19koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeek Aurrekontuei buruzkoa.

" 67. artikulua. Legezketasunaren kontrola."

1.- Kontu-hartze-eginkizunaren helburua, haren legezketasun kontrolaren ikuspegitik, toki erakundeek eta beraien organismo autonomoen egintza guztiak, beti ere haiek eskubide eta betebeharrak ekonomikoak edo gastuak aintzatestea eta likidatzea eragiten dutenean, beraietatik sortzen diren sarrera eta ordainketak eta administratutako ondasun publikoen bilketa, inbertsio eta, oro har, aplikazioa fiskalizatzea da, kudeaketa kasuan kasuko aplikatu beharreko xedapenen arabera izan dadin.

2.- Eginkizun horren erabilerak honako hauek eskuhartuko ditu:

a) Eskubideak edo betebeharrak ekonomikoak sortzea edo baloreen fondoak mugitzea eragin dezaketen egintza, agiri edo espediente guztien kontu-hartze kritikoa edo aurrekontuazkoa.

b) **Ordainketa-aginduaren erazko kontu-hartzea.**

c) **Ordainketaren kontu-hartze materiala.** Udalbatzaren erabaki batengatik kontrol hori laginketa bidez baimentzen denean izan ezik, kontu-hartzailearen sinadura foru arau honetako 57. artikuluan aurreikusitako fondoen erabilpenerako mankomunatuak erantsiko zaie.

"70. artikulua. Erreparoa."

1.- Kontu-hartze-eginkizuna erabiltzean, organo kontu-hartzailea aztergai diren egintzen, agirien edo espedienteen edukiarekin edo itxurarekin ados ez badago, bere erreparoa idatziz azaldu beharko ditu erabakia edo ebazpena hartu baino lehen.



3.- Erreparoa gastuen erabilpenari, betebeharren aintzatespenari edo ordainketa-aginduari badagokio, espedientearen izapidetza etengo da harik eta hura ebazten den arte, beti ere honelakoetan gertatzen denean:

c) Espedientearen **funtsezko beharkizun** edo izapideak alde batetara utzi direnean.

4.- Erreparoa ukitzen duen organoa berarekin ados ez dagoenean, udalburuak ebatzi beharko du eztabaida, eta beraren ebazpena betearazi beharrekoa izango da. Ahalmen hau ezin da eskuordetu.

27/2013 Legea, abenduaren 27koa, toki-administrazioaren arrazionalizazio eta iraunkortasunari buruzkoa.

Bigarren artikuluan Martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartutako Toki Ogasunak arautzen dituen Legearen testu bateratua aldatzen du eta honela geratu da aldatuta martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Toki-ogasunak arautzen dituen Legearen testu bateratua:

"218. artikulua. Desadostasunen ebazpenari buruzko txostenak."

1. Kontu-hartzailetzako organoak txostena helaraziko dio osoko bilkurari, adierazitako eragozpenei dagokienez toki-entitateko lehendakariak hartutako ebazpen guztien inguruan; halaber, diru-sarreraren arloan antzemandako arazo nagusien laburpena bidaliko dio. Txosten horrek funtzio ikuskatzaileari dagozkion alderdiei eta betekizunei bakarrik erantzun die, ikuskatutako jarduketaren aukera edo komenigarritasunari dagozkion gaiak gaineratu gabe.

Atal honetan jasotzen denak puntu independente bat osatuko du dagokion osoko bilkurako gai-zerrendan.

Korporazioko lehendakariak jarduketaren txosten justifikatzailea aurkeztu ahal izango du osoko bilkuran.

2. Aurrekoari kalterik egin gabe, eta desadostasunak daudenean, toki-entitateko lehendakariak kontrol-organo eskudunari aurkeztu ahal izango dio bere ebazpena, finantza-tutoretza esleitua duen administrazioaren gaia delako, hain zuzen.

3. Kontu-hartzailetzako organoak txosten bat helaraziko dio urtero Kontu Auzitegiari, toki-entitateko lehendakariak eta korporazioaren osoko bilkurak adierazitako eragozpenen kontra hartutako ebazpen eta hitzarmen guztien inguruan; halaber, diru-sarreraren arloan antzemandako arazo nagusien laburpena bidaliko dio. Dokumentazio horrez gain, tokiko korporazioaren justifikazio-txostenak aurkeztu beharko dira, hala badagokio.»

32/2018 Foru Dekretua, abenduaren 27koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Tokiko Sektore Publikoko entitateen barne kontrolaren araubide juridikoa erregulatzen duena

12. artikulua. Eragozpenak.

4. Organo kontu-hartzaileak adierazten badu ez dagoela ados aztertutako egintza, agiri edo espedienteen mamiarekin edo formarekin, bere



eragozpenak idatziz azaldu beharko ditu. Eragozpen horiek irizpidea finkatzen duten arauetan oinarritutako arrazoibideen bitartez motibatu behar dira, eta espedientean jasotako oztopo guztiak barnean hartuko dituzte.

5. Baldin eta eragozpenak gastuen onespenerari edo xedapenerari, obligazioen onarpenari edo ordainketen aginduari eragiten badio, espedientearen izapidea etengo da harik eta hura ebatzi arte, betiere 21/2003 Foru Arauaren 70.3 artikuluan jasotako kasuetan gertatzen denean.
6. Aipatutako 70.3 artikuluan c) apartatuan jasotako kasuan, bidezkoa izango da eragozpen etenarazle bat azaltzea, honelakoak gertatuz gero:
 - a) Gastua onartzeko eskumenik ez duen organo bati proposatzen zaionean.
 - b) Obligazioaren onarpenaren frogagiritan irregulartasun larriak sumatzen direnean edo jasotzailearen eskubidea behar adina egiaztatzen ez denean.
 - c) Baldintzak edo izapideak ez betetzearen ondorioz egintza deuseztatuta gelditu daitekeenean edo, kudeaketa administratiboarekin aurrera jarraituz gero, toki entitateko diruzaintzari edo hirugarrenei diru galera ekarri ahal zaienean.

Korporazioko osoko bilkurak beste baldintza edo izapide osagarri batzuk onartu ahal izango ditu, organo kontu-hartzaileak txostena egin ondoren, eta haiek ere funtsezkotzat hartuko dira.

4. Eragozpena jasotzen duen organoak hura onartzen duenean, bertan jasotako akatsak zuzendu beharko ditu eta jarduketak berriro bidali beharko dizkio organo kontu-hartzaileari hamabost eguneko epean. Eragozpena jasotzen duen organoak hura onartzen ez duenean, aldiz, foru dekretu honetako 15. artikuluan xedatutako prozedura hasiko du.

5. Baldin eta espedientean akatsak gertatzen badira funtsezkotzat ez diren baldintzak edo izapideak eta 21/2003 Foru Arauaren 70.3 artikuluan jasotako gainerakoak ez betetzearen ondorioz, Kontu-hartzaileak aldeko txostena egin ahal izango du, baina, egintza eraginkorra izango bada, akats horiek espedientea onartu aurretik zuzendu beharko dira. Organo kudeatzaileak akats horiek zuzendu izanaren frogagiriak bidaliko dizkio organo kontu-hartzaileari. Baldin eta organo kudeatzaileak espedienteak aurrera jarraitzeko ezarritako baldintzak betetzen ez baditu, eragozpena azaldutzat hartuko da, eta horrek ez du eragotziko, egoki deritzen kasuetan, foru dekretu honetako 15. artikuluan jasotako prozedura hastea. Organo kontu-hartzaileak Herri Kontuen Euskal Epaitegira bidaliko ditu apartatu honetan jasotakoaren arabera azaldutako eragozpenen aurka hartzen diren ebazpen eta erabakiak.

b) Indarrean ez dauden kontratu batzuen fakturak iritsi dira eta honako hauek dira:

FAKTURAREN DATA	FAKTURA ZENBAKIA	INTERESATUA	KONTZEPTUA	GUZTIZKOA BEZA BARNE
2026/4/30	260144	ARAZI IKT, S.L.	Algorri interpretazio zentroaren kudeaketa	3.708,72
2026/3/20	26FA036602	ANTICIMEX 3D SANIDAD AMBIENTAL, S.A.U.	Izurriteen aurkako mantenu prebentiboa-otsaila	690,70



2026/3/20	26FA036601	ANTICIMEX 3D SANIDAD AMBIENTAL, S.A.U.	Izurriteen aurkako mantenu prebentiboa- urtarrila	690,70
2026/4/30	26FA062319	ANTICIMEX 3D SANIDAD AMBIENTAL, S.A.U.	izurriteen aurkako mantenu prebentiboa- apirila	690,69
2026/4/29	059/2026	ASOCIACION PROTECTORA DE ANIMALES Y PLANTAS DE GIPUZKOA	HILEKO KUOTA FINKOA	509,41
2026/4/30	041/2026	ASOCIACION PROTECTORA DE ANIMALES Y PLANTAS DE GIPUZKOA	ANIMALIEM GARRAIOA+EGONALDIK	654,05
2026/2/18	2675001059	TECHNOGYM TRADING, S.A.	KIROLDEGIKO MAKINERIAREN MANTENUA Care PROGRAM+ performance-OTSAILA	568,12
2026/4/22	2675002902	TECHNOGYM TRADING, S.A.	KIROLDEGIKO MAKINERIAREN MANTENUA Care program-apirila	568,12
2026/4/28	90/26	KASTORE GEST, S.L.	APIRILAK 18 REALAREN FINALA	646,02
				8.726,53

c) C.B.

FAKTURARE N DATA	FAKTURA ZENBAKIA	INTERESATUA	KONTZEPTUA	GUZTIZKOA BEZA BARNE
2026/04/28	2	DAVID CARRETERO Y OTRO C.B.	UDALETXEKO TEILATUKO MANTENIMENDU LANAK	1.074,48
				1.074,48

ONDORIOAK:

a) Zerrendatutako kontratu guztiak irregulartasun egoeran daudelarik, lehenbailehen eguneratu behar dira. Eta udalak ez dauka ahalmenik, izaera juridikorik ez daukalako, ondasun erkidego bateri lanak kontratatzeke.

b) Momentuz, zerrendatutako faktura guztien ordainketaren izapidetzea etengo da Alkateak ebatzi arte. Kontu-hartzaileak txostena helaraziko dio Osoko Bilkurari, adierazitako eragozpenei dagokienez alkateak hartutako ebazpen guztien inguruan eta **puntu independente bat osatuko du dagokion osoko bilkurako gai-zerrendan.**

Zumaian,

Kontu-hartzaile akzidentala

INAKI OSTOLAZA ESNAL:



Ba bueno, 49.000 euro ordaindu dia. Lodienak dia eguneko zentrua ta Arazi. Ea urtian zehar lortzen dugun Aldundiak hau egitea eta hau gaintekan kentzen dugu. Eta gero daude beste txiki danak.

Eta 6. Puntuak berdina, kasu hontan 8.000 eurokoa, Arazi kenduta bestiak txikiak dira. Hor zintzilikan geatzen zaizkiun kontrato txiki hoiek ea noizbait ateatzen ditugun denon laguntzarekin.

4.2.- UDALAREN 2026KO 5. ETA 6. KREDITU ALDAKETAK JAKINARAZI.

2026ko aurrekontuan kredituak txertatzeko proposamena.

Kod.	Gastuen partida	Azalpena	Zenbatekoa
a	1 0100.212.134.00.01 2025	IGOGAILU PUBLI	2.302,73
a	1 0100.212.323.00.02 2025	MANT.JADARRE/ARDANTZA IKASTETXEETAKO INST.TERMIKOEN MANTEN.	6.340,25
a	1 0100.212.333.00.02 2025	ALONDEGIKO INST. TERMIKOEN MANTENIM.	1.725,24
a	1 0100.212.920.10.01 2025	IGOGAILUEN MANTENUA LOKAL PUBLIKOETAN	4.052,96
d	1 0100.601.134.00.01 2025	ITZURUNBIDEKO IGOGAILUA	65.630,61
d	1 0100.601.153.21.01 2025	HOBETZE OBRAK BIDE PUBLIKOETAN	84.416,51
d	1 0100.601.166.00.01 2025	INBERTS.UR ZIKINEN AZPIEGITURETAN	3.401,85
d	1 0100.622.172.01.01 2025	ALGORRI MUSEOGRAFIKOKO OBRA (ULO)	48.098,95
d	1 0100.622.323.00.01 2025	HOBETZE OBRAK HEZKUNTZAN (ULO)	17.056,85
d	1 0100.622.342.02.01 2025	OIKIAKO FRONTIS ITXITURA (ULO)	8.000,00
d	1 0100.625.153.30.01 2025	HIRI ALTZARIAK	34.245,81
d	1 0100.625.920.00.01 2025	ALTZARIAK UDAL ERAIKINETAN	892,74
d	1 0100.629.334.02.02 2025	KOMENTUKO EKIPAMENDUA	13.673,21
d	1 0100.643.151.00.01 2025	HIRIGINTZAKO AZTERLANAK	109.537,42
a	1 0600.226.170.00.99 2025	INGURUGIROKO HAINBAT GASTU	1.022,55
a	1 0600.226.172.00.97 2025	ZARATA MAPA-EKINTZA PLANA	10.648,00
d	1 0900.626.334.01.01 2025	IKT GAILU BERRIAK	543,29
a	1 1000.471.431.00.01 2025	MERKATARIEI ALOKAIRUEN DIRULAGUNTZAK	7.250,00
a	1 1300.212.342.01.99 2025	MAKINERIA, INSTALAZIOAK ETA TRESNERIA	2.763,64
d	1 1300.623.342.01.03 2025	IGERILEKUKO TRANPOLINAK	31.744,35
d	1 0100.601.133.00.02 2025	BIDE SEINALIZAZIOA-MARGOKETA	3.220,99
d	1 0100.601.161.00.01 2025	INBERTS.UR HORNIDURAN AZPIEGITURETAN	17.337,47
d	1 0100.601.165.00.01 2025	INBERTSIOAK ARGITERI PUBLIKOAN	28.373,98
d	1 0100.623.342.04.02 2025	ITSASKIROLDEGIKO GRUA	15.000,00
TXERTATU BEHARREKO KREDITUAK GUZTIRA			517.279,40



KODEEN AZALPENA

- a) Aurreko ekitaldiko azken hiruhilekoan onartutako transferentziak eta kreditu gehigarriak.
- b) Xedatutako gastuen kredituak, obligazioa onartu gabe dutenak.
- c) Gaitutako kredituak eta finantzaketa lotua duten kredituak.
- d) Kapital eragiketen kredituak.

2026ko aurrekontuko kreditu txertaketaren finantzaketa

Kod.	Sarrerren partida	Azalpena	Zenbatekoa
a	2 0000.870.920.00.01 2026	DIRUZAINZA GERAKINA GASTU OROKORRETARAK	517.279,40
FINANTZAKETA GUZTIRA			517.279,40

KODEEN AZALPENA

- a) Gastu orokorretarako diruzaintza gerakina.
- b) Finantzaketa lotua duten gastuetarako diruzaintza gerakina.
- c) Sarrera konpromisoak.
- d) Sarrera berriak edota likidatutako sarrera handiagoak.
- e) Aurreko ekitaldian aurrekontuan aurreikusitako epe luzerako maileguak, formalizatu gabeak.

KREDITU GEHIGARRIEN PROPOSAMENA

Udal zerbitzuek dituzten premiei eta obligazioei aurre egiteko, beharrezkoa da hainbat gastu berehala egitea. Izan ere, horiek atzeratuz gero sortuko litzatekeen kalteak eragin nabarmena izango luke zerbitzuen kalitatean. Aurrekontuaren exekuzioaren arabera, orde, gastu partidetan ez dago nahiko krediturik aipatutako gastuei aurre egiteko. Ondorioz, kredituak sortzeko edo, hala badagokio, gehitzeko proposatzen da, ondoko taulako xehetasunaren arabera:

Gastuen partida	Azalpena	Kredituak		
		Egungoak	Aldaketak	Behin betikoak
1 0100.622.173.00.01 2026	SANTIAGOKO ARRAPALA (ULO)-PSTD	243.594,32	48.101,53	291.695,85
GUZTIRA		243.594,32	48.101,53	291.695,85



--	--	--	--

Kod.	Partida	Azalpena	Zenbatekoa
a	2 0000.870.920.00.01 2026	DIRUZAINZA GERAKINA GASTU OROKORRETARAK	48.101,53
FINANTZAKETA GUZTIRA			48.101,53

KODEEN AZALPENA

- a) Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina.
- b) Finantzaketa lotua duten gastuetarako diruzaintza gerakina
- c) Sarrera berri edo handiagoak.
- d) Kredituen baliogabetze baja.
- e) Kreditu eragiketak.

Zumaian, sinadura digitalaren datan.

Iñaki Ostolaza Esnal
Alkatea

IÑAKI OSTOLAZA ESNAL:

Bosgarrena 517.000 eurokoa, lehengo urteko txertaketak dia. Hauek dia martxan zeudenak eta pasa behar zianak, aurten bukatu dian gastuak lehengo urtian hasi eta inkorporatu in behar dianak.

Eta gero seigarren kreditu aldaketa 48.000 euro, gerakinetatik ateratakuak, eta Santiagoko arrapaladako obrara bideratu dianak. Ba bueno, hor zeon eraikina bere garaian Costasek egin zuena, pitzadura batzuk badauzka, eta ura sartzen da nunbaitetik. Eta egokitzeko obrak egin behar zian lehendabizi gero proiektatutakua egin ahal izateko.

4.3.- ALKATE EBAZPENEN BERRI EMATEA.

Alkate ebazpenen berri eman du Alkateak.

5.- ESKARI – GALDERAK

Zerbait komentatzeko? Ba badaude Osko Bilkurak luze juten dianak eta beste batzuk labur-labur juten dianak. Beraz, maiatzekuai bukaera emangoiou ta ekainian ikusten gea. Eskerrik asko.



Zumaiaiko Udala

2026IAKU0005

Eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat eman du, arratsaldeko seiak eta hamabi direnean eta nik, Idazkariak, fede ematen dut.

Zumaian, 2026ko ekainaren 19an

IDAZKARIA
Gorka Urgoiti Agirre

Foruen plaza 1 • Tel.: 943 865025 • Faxa: 943 862456 • 20750 ZUMAIA
www.zumaia.eus • e-mail: udala@zumaia.eus

EKS | CSV: ESKU3e90787d-1108-45e9-8473-a8cb205aff75



Egiaztatu dokumentu honen osotasuna eta sinadura hurrengo URL edo QR kodean sartuz: <https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus?De=08110>
Compruebe la integridad y firma de este documento, accediendo a la siguiente URL o código QR: <https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus?De=08110>

Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

Titulua / Título:

2026IAKU0005-Dokumentu orokorra/Documento genérico ()